Zirikadeak

LAUAXETA

"Artolatauko" jaunak darabiltzan zeregiñak amaītu baño lenago, "La Constancia" masoi-egingo da. Gipuzkoa-Buru-Batzaŕa'ko burukide diranai emon eutsen galena dala-ta, bakotxaren etxietako gauzak kendu dautsez.

¿Bosteun lauŕlekuak ordaindu gura ez? ¡Oraintxe ikusiko dozube Artola nor dan! Enbargau dautsez etxeko tramankulubak eta kiīu. Orain bai pozik abestu daikegula:

Artola'k dauka Artola'k dauka
Artola'k dauka plantia,
beria debela, beria dabela
mundu gustiko jentia."

Giputzai etxake jausi txorimalu txaŕa. Baña oregaz uste ba-dau abeŕtzaletasuna kilkuduko daula, mutil ona dago.

Artola baño gixon kementsubaguak il dira euzkoen abeŕtzaletasuna erail-barik.

卐 卐 卐

"La Constancia" irakuŕi dogu ta bertan auŕkiīu dogunaz ikeratuta gagoz. ¿Zer dan? Datoŕen igandian Zumaŕaga'ra juango eztiranak, "excomulgauta" ei-dagoz. ¿Ikeratu zara, ikeratu? Ezta gauza makala baña egi utsa. "Excomulgauta" egon gura ezpa-zara, zuaz Zumaŕaga'ra ta zeure bixitzako ogenaen nekaskeak antxe loŕtuko dozuz.

Karlataŕen batzaŕetara duana ezta inpernura be juango. Antxiña Roma'ra juaten ziranak legetxe, oneik be bidazti doniak dira. Olazabal jaunak onespena edo benditziñua emongo ei-dau.

卐 卐 卐

"Francotirador" deritxon idazle batek esan dautsez esatekuak Gipuzkoa'ko ezkeŕtaŕai. Perez askok agindu gura daulako Gipuzkoa'ko eŕkaldaŕtasuna galduta ei-dago. Baña Perez oreik agindu biaŕean Amilibia'k aginduko ba'lebe, "separatismua" jausiko litxakela dirautse.

Ia gexuarentzat saldageyago, txaŕto dago-ta. Olo-saldea atan be. Aiko, aiko,

卐 卐 卐

Ogetasaspi egunotan espetxeratuta dagoz Barakaldo'ko iru abeŕtzale. Epaikari jaunak azke itxi euzan-aŕen, jauŕlarijak eztauz azkatu gura. Usansolo'ko gora-beratan ixan etziranak be espetxian dagoz. ¿Noiz azkatuko dabez? Asua'n ixan zan eztabaida baten atxilotu ebezalako iru mutil espetxeratu dabez. Evretariko bat ardandegijan egualako. Eta olantxe beste geyenak.

¿Eta ain beste gixon erail dabezanak? Oŕeik azke dabiltz. Txindegijetan diruba atrapetan dabenak, be, azke dabiltz. Pozik egoteko ezpada, buruba ibaira jaurti ta bakia ixango dogu.

卐 卐 卐

Sota'taŕ Imanol eta Agiŕetxe'taŕ Gotzon'en auŕka ixan dan epaikintzan, baŕe egiŕeko gauzak ikusi genduzan. Tola edo bola'ren mekanikua edo dana dalako bat antxe zan abeŕtzale bijak egin ezebezan gauzak esateko.

Castillo dauko abixena, ¿bai?, eta edozer gauza itxadon zeinke olako gixonengandik. "Yo, como católico", "Yo, como cristiano", "Yo, como creyente" itz oneik etxakozan jausten abotik. Antxiñako Inkiziño arek legetxe: Gixon au eŕugia da baña erail egixube eŕe gixube.

Agiŕetxe jaunari geyagorik esan eutson: "Este señor, si tal nombre merece". Lotsa askorik eztauko gixontxu oŕek. Baña geyago be eldu ziran Eloŕio'tik. Emakumetxu bi, margarita diralako bi. Batak gauza bat esaten ebanian, bestiak beste bat iñuan. Guzuŕa iñuen eta lasteŕ atrapau ebezan "Oneik Muera España" esan eben? Eta emakume ziztriñak bayetz iñoen. Baña Tola'ren mekanikuak ezetz erantzun eutsen. Ori baño gauza txaŕagua entzun neutsen. ¿Zer zan ba? "España a la m...". ¡Amaikatxu baŕe algara entzun zan aretuan!

Katolikuak dirala diñoen emakumiak guzuŕa erabilteko lebarik eztauke. Pizti onak dagoz ingurubetan.

卐 卐 卐

Eŕotatxueta'ko ikastoletara juan zan españaŕ irakasleme batek iīaundu eutsen umiai: "¿Zein da euzkotaŕen abeŕija?" Umiak abo batez erantzun eutsen: "Euzkotaŕen abeŕija, Euzkadi da". ¿Zenbat dira euzko-eŕkijak? Eta umiak, Euzkadi'ko sei atal dauz, lau España'pian eta bi France-menpian."

Beste bein ezta etoŕiko inspectora edo dalako emakume ori. Ikeratuta uŕten ei-zan ikastolatik.

Olako ume asko eukiko doguzanian, kukuŕku egingo dogu, bitaŕtian ixilik egon gadixan.

4'ta erdijetan itzaldija.—Izlarijak ixango dira:

R. de Azua'taŕ Andoni, "Ogonope".
Urkiaga'taŕ Estepan "Lauaxeta".
Trabudua'taŕ Polixene eta
Agiŕe'taŕ Joseba Andoni, Nabaŕa'ko alduna.

Oleskarijak: Enbeita anayak, Balendin ta Sabin.

Onek amaīuta jolas garbijak ilunabaŕera aŕtian.

Uaŕa.—Oturantza ixango da ainbat onena Txartelak edo jarlekua gura dabenak Gernika'ko Uŕutizkiñera itz - egin edo Axangiz'ko Batzokira ta Bilbao'ko Euzko-Gastedira eta gordeko yake. 7 lauŕleko ta erdi ixango da oturantzarako txartela.

ARRONA

ASTEKO IZPAŔAK. — Emen aguŕtu ditugu, Ajaŕista'taŕ Kepa Erentzun'daŕ Ion Uranga'taŕ Ane ta Oyarzabal'daŕ Matalen.

—Gazteiz-aldian ikastaldiak egin ondoren etxeratu dira Balenziaga anayak.

—Oŕilaren azken egunean ugutzatu zan Buskandegi-baseŕian duten mutiltxo jayo beŕia, Joseba Iñaki euzkal-izenakin.

—Abeŕtzale itzaldiak. Itzaldiak Ugartetxea ta Zipitria'k egin zituzten joan dan igandean emengo areto edeŕ baten.

—Pasko biyamonian emengo poxpoliñak Aizarna-auzo eŕiara joan ziran.

IZPARKARI.

Euzkotar umien aldez

Tabako-orria

"Ikusi genduzen indiīaŕ asko, belaŕ batzuekin txortak egin, su-eman, abuan saŕtu, kia irintzi ta atzera kanpora botatzen zutenak."

Fray Bartolomé de las Casas.

Tabako landarea azitik datoŕ. Azi txiki-txiki, ze-ze bat da.

Cuba, Ipaŕ-Amerika ta beste lateŕi batzuetatik ekarten dan tabako aziak, datoŕen lateŕiko agintarien agiria ekartzen du.

Agiri onek esaten du azia garbia, ona ta gaxo gabia dala. Au da, areiten dan azi dana eŕneko dala.

Azia ondo aukeratua izaten bai ta.

Aziak zenbateraňoko erne-indaŕa duan jakiŕeko prueba batzuek egiŕen dira.

Esaterako: eun azi ipinten dira "Jacobsen" izena duan erne-ontzi baten eta ogei graduko beroa beti daukan labetxo batian sartzen dira. Tabako-oŕia ernetzeko auxe bai ta berorik onena.

Aziak beti bustiīa egon diīezen, arı matasatxo ba ernetegitik ixekiīa egoten da ertza uretan dualarik.

Irugaŕen egunean azia aunditzen azten da, ta laugaŕen edo boskaŕen egunean erneta dago.

Erne ala, aziak banaka banaka aldendutzen dira ta gero azkenengoa erne ta kendu danian zenbatzen dira ia zenbat azi erne diran.

Baita ere beste era onetara jakin leike tabakoazien erne indaŕa.

Luŕean eun azi erein eta zenbat azi ernetzen diran zenbatu ta emendık atera leike eunetik zenbat erne diran.

Tabako-oŕia erein nai duten nekazariarı maten gayon azia ziuŕa da, gaitz gabia, biaŕ dan eran erne ta aziko dana.

Tabako-oŕia erein nai duten nekazariari ondo datorkiote auxe jakiīia:

Emen artzen dan tabako-oŕia erostera beaŕturik dagoala "Compañía Arrendataria "izendun Bazkuna.

Beste gauza bat ere esango dizutet. Tabako-oŕia ereitiak eta landutiak onura batzuek ekaŕi leizkioke gure abeŕiko nekazariari.

1'g. Aŕiak landarea galtzen duenerako aseguroak daude, euneko batera eltzen ez dan eŕeitua ordainduan bakaŕik, eta tabako oŕia saltzen danean ordaintzekoa bera.

2'g. Tabako-oŕiak balioko duan euneko ogeitamaŕ edo euneko beŕogeitamaŕeraňoko dirua Lateŕiak auŕetik emango dio nekazariari baldin eskatzen ba'du.

3'g. Iru edo lau uŕtean saneuŕi onak iritxi ditxizten nekazariari sariak ematen zaizka.

Sari abek era bitakoak dira: batzuek nekazariak nai duan gauzetarako, eta beste batzuek, tabako-oŕia legoŕtzeko legoŕleku beŕiak egiŕeko izaten dira.

Sari abek anei lauŕlekokuak dira.

Bai daude beste sari txikiago batzuek ere, tabako-oŕi salak soruetan edeŕkien eta obetuen dauzkaten nekazarientzat.

Tabako-oŕiak ez ditu beaŕ ez berarizko lanik, ez berarizko ardurarik, beste edozeŕ gauza ereiteko bezela luŕa landuaz egiña dago.

Esaterako, goldetu, atxuŕtu ta sokoŕa ondo jo ezkero luŕa ondo dago.

Simauŕa ona du tabako-oŕiak, baña beretzat izango ba'da iru ilabete auŕetik luŕari eman beaŕ zayo.

Auxegaitik, simauŕa eman da iru ilabetian luŕa geldirik ez eukitziagaitik, simauŕa baño beste gauza batzuek ematia obiagoa da.

Esaterako superfosfato ta sulfato de potasa erderaz izena duten txori-simaurak.

Erderaz nitrato izena duan txori-simauŕa ere gustiz ona da landareari oŕi aundiak azteko, baña tabako-oŕia aundıtu bezela bastotu egiŕen dualako ez da erabiltzen.

Zabako-oŕi landareak luŕa gutxi nekatzen du. Bere atzetik garia ereiten ba'da gustiz ona asten da.

(Daŕaike)

AŔITOKIETA.

Euzko-abendea

«LERAGA»

II

Kiīal.—Nigaz itz-egiŕen dokala alde-batera iribaŕiak gero egija argiīa garbi esan niri.

Aresti. — Agintzen dozulako bakaŕ-bakaŕik.

Kiīal.—Biaŕ, be, bai.

Aresti.—Nigaz itz-egin dauna otxandianotaŕa ixan da.

Kiīal.—Nor ete-zuan bera.

Aresti.—Crixe eztakit, neuk, be.

Kiīal.—(Azkonaz zemaīuten). ¿Eztakıtzala?

Aresti. — (Bulaŕa arokiro erakusten). Uŕatu, bai uŕatu egixu neure bulaŕa emen dau-ta.

Kiīal.—Begiz so-egik azkon au.

Aresti.—Eztautzat bilduŕik, izkilu oŕegaz zauriīu nagixu.

Kiīal.—Baŕiro diñoskat: esan garbiro iīanduten dauskadana, bilaka ontan, ba, buruba galdu al-daikek-eta.

Arẹsti.—Zeuria, Kiīal, lenen eratzi biaŕko dozu.

Kiīal.—Nik neure buruba eratzi?

Anboto-atxak beria lenen
Atxaŕteraño makuŕtuko yok
nik neu-buruba
malgutu baño.

(Ereskin otsak samuŕ ogaŕak letxe beŕesaten dauz itxok).

Eure gorpuba Anboto'ko malkaŕ-erpinetan Untzila-atxeko aiztoriak iruntsiko yabek.

Aresti.—Iīauneari nik erantzungo eztautxan ezkero jo-egixu neure bulaŕau.

(Kiīal'ek Arizti eskeŕaz samatik aŕtuta azageaz il gura daula oinkidiak santzoka saŕtuten dira ta Kiīal'i azagea kenduten dautse).

IV Antzeŕkija

Oňak, Kiīal, Aresti

Oin-taldiak.—Geure laguna eztozu ilgo, ¿zer egin ete-dau, ba, azaga zoŕotz-zoŕotzaz erijotzea aŕtzeko? ¿Zer egin ete-dau? Geure bulaŕok lenengo zauriīuko biaŕ dozuz geure oinkidiarena uŕatu ta zabalduteko azageaz.

Kiīal.—Ixilik oro! Neu-izpidiak eztakixubez ukutaŕtian ixan dodan au banan-banandu ta zatiīuteko ta ixildu zakidaze, zebek be, erijotza laŕija aŕtu nai ezpa dozube.

Oňak.—¿Negaŕen geu ixildu? ¿Negaŕen baña?

(Azageak zemakin ikaragaŕijaz agertu ta eskumatik eskeŕera erabilīen. Zeure odolak luŕian bol-bol-egingo geure oinkidia zeure eskubetan il baño lenago. Autu exu, ba, autu...

Kiīal.—Ixil gustijok aŕen: entzun egistazube gaiztetsi baño lenago, entzun aŕen.

Oňak.—Aŕetaz, bai, baña sendotasunaz entzungo zaugu.

Kitaĺ.—Atso bidaldu leudan nik au ordora beko bideko txapaŕtaŕte baŕendau ixateko: eta gauŕ eguberdi aldian gixon bategaz itz-egiŕen edo-ikusi dot eta euraen eskutaŕte zer ete-lebilan jakiŕeko neuk idi-adaŕaz deīu dautsat.

Oňak. — Zuk baña ¿zelan ete-dakixu geure lagunak eguberdijan gixonaz itz-egin daula? ¿Zelan dakixu, baŕiro?

Kiīal.—Anboto'ko oin garayan nenguan ni beko gustija ikusten, eta aŕatsalde-apalijan au ona etoŕi zala nogaz ixan ete-zan iīaundu leutsadan. Eta eztaust erantzun nai ixan.

Aresti.—Guzuŕa, guzuŕ utxa da.

Kiīal.—Eŕta guzuŕa, ez, ezta guzuŕa zeuk erantzun leustazuna auxe da "ni iñogaz be, enaz ixan" Baŕiro iīanduta agua edeki leban eta aoŕ zeure erantzuna: "Otxandiano,,'ko gixon bategaz itz "egin -dot". Itxik eztot aldatu gero.

Onak.—Eta ori dozu geure laguna iliīeko izpidia? Ori bakaŕik ezta naikua.

Oin batek. — Entzun egistazube, aŕen: Atxaŕte-sakonduban nintxala gixon berbera igaro zan. Zadoŕ eraño uŕten natxakijon nungua zala iīaundubaz. Eta "Otxandiano baseŕikua" erantzun leustan. Eta txindija eskatu leutsadan, eta ez txindirik ez, ostantzekorik eleukala erantzunaz auŕera gentziaŕen juteko eskatu leustan. Eta nik jardetsi leutsadan. Ez orixe nundik atoŕan jakin aŕte beintzat. Ni Gernika'tik natoŕ, ta nigaz ostez Butron'go Nagusijaren bigaŕen semia letoŕala esan eta erantzun leustan, Otxandiano'tik-edo ezkongai onua eruateko beraren anayaz ezkonduteko ta auŕera joten itxi leutsadan geroko ointzaŕaz soratuta. Eta orain, be, neure laguna il nai ba'dozu, neu, be, il-nagixu.

Oňak.—Bijok eztozuz asketsiko?

Kiīal.—Tira, ba, tira; oinguan askesten dautsubet, baña oinguan bakaŕik; eta orain bakotxa beren baŕendegira, euzkotaŕen burubaren semia auŕera jaso eztaŕen.

Oňak.—(Pozaren pozaz). ¡Aupa mutilak! Mendiīik bera erbijaren atzian.

V Antzeŕkija

Oin-taldia

Untzila-atxa ikarauko da
geure abesti otsaz:
eta Anboto'ko aŕkatxak
amildu dira amildu,
erosi dira.

Goiko mendiīik
aŕijak letxe
lapuŕak bera
jausten gara
Berango bide
ozte-taldiak
bilduŕ-ikaraz
ixututen.

Untzila-atxa ikarauko da
geure abesti-otsaz:
eta Anboto'ko aŕkatxak
amildu dira amildu
erosi dira.

Anboto nausi
ganetik bera
bota oi-doguz
gorputz ilak
Untzila-Anboto
gau egaztijak
alikatzeko
gaberdijan.

Untzila-atxa ikarauko da
geure abesti-otsaz
eta Anboto-aŕkatxak
amildu dira amildu
erori dira.

Antzeztoki-euna geldiro beratuten da.

(Daŕaike)

EZPATADANTZA.—Gora beleunak... alde guzitara soiña... trinkoak mutilak. Lerdenak... gure ezpatadantzariak bezi aunditurik eduki zitusten enparantzan ... anak. ¡Aupa mutilak...!

EŔOMERIA.—Ater unea izan genu oŕaitik eŕomeri bitaŕtean. Gastediak bi aprobetxatu ere. Abe Maritakoak jo bitaŕtean an jardun zitzaigun dantza eta ...

Irugaŕena bota degu. Botako al ditugu beste iru, lan edo zortzi edo amar urtekoak. Lan asko bai dago egin beaŕik. ¿Noiz jabetuko ote dira uri aundi orotako abeŕtzaleak, baseŕi atadira joan beaŕ degulakoaz?

Datoŕen Igandean, donostiaŕak, Bidania ta Asteasura datoz, gu, tolosaŕok, Orendain'era goaz.

Jo ta ke Donostiaŕak Asteasu ta Bidania!

Tolosaŕok... Orendain'era!

UZTURE.

DESDE ELGETA

Ante una campaña difamatoria

Recibimos la siguiente nota:

"El corresponsal de "La Voz de Guipúzcoa" en Elgeta, don Eusebio Monje, se empeña en hacer de nuestro dignísimo párroco en todo momento un arco de iglesia, publicando errores tales, que entran de lleno en el capítulo de injurias, por las groserías que contienen sus escritos publicados en "La Voz de Guipúzcoa", siempre que del mismo se trata.

Ante la persistente y sistemática campaña difamatoria que contra dicho señor párroco viene haciendo el expresado corresponsal, los que suscriben, en nombre de la inmensa mayoría de los vecinos de Elgeta, testimoniamos, en primer lugar, la más absoluta adhesión y la obediencia más incondicional a nuestro venerable señor párroco, a la vez que reprobamos la conducta incalificable del citado corresponsal, que, siendo incapaz de admirar, y mucho menos de imitar, hace por rebajar las excelentes virtudes y celo demostrados en la iglesia parroquial con su recta y acertada dirección.

La vergonzosa y antimoral campaña que venimos observando desde hace tiempo en "La Voz de Guipúzcoa", sostenida por Eusebio Monje (maestro de Elgeta), campaña llena de falsedades, ha llegado a un límite intolerable.

En la carta fecha 31 de mayo se atropella la honra de nuestras mujeres e hijas y se nos trata a nosotros como a seres degenerados que consentimos la inmoralidad de ellas.

Falsedades de esa categoría no podemos contestar, por ahora, más que con nuestro mayor desprecio para quien las lanza.

En cambio, la opinión pública elgetarra aprecia en su alto valor la trascendencia de la dilatada y recta intervención de nuestro dignísimo párroco para con la feligresía y, por cierto, con toda abnegación y modestia admirables, y los firmantes unánimemente declaramos que quien falsea la verdad es el corresponsal tantas veces repetido, con los escritos que suscribe en el periódico citado, haciendo la reseña contraria a cuanto dice desde el púlpito. Y se ve que él no asiste ni entiende y sus adláteres no le son buenos intermediarios.

Siga nuestro dignísimo párroco dirigiéndose en todo momento como hasta el presente, y los firmantes le quedarán eternamente agradecidos, y guárdese el corresponsal de tirar de la lengua al pueblo que puede decir muchas cosas poco agradables para él en letras de molde.

Daniel de Telleria, Félix Lizundia, Domingo María Beistegi, Bartolomé Elcoro, Agustín Fernández, Valentín Aranzeta, Eusebio Sarasketa, Ignacio Aranzabal, Venancio de Aurrekoetxea, Modesto Elcoro, Jesús Bareño, Evaristo Aranzeta, Domingo María Azkarate, Rafael de Aranzabal, Joaquín Lazkano, Jacinto Elcoro, Luis Telleria, Gervasio de Erzilla, ... de Loidi, Antonio Markiegi, Juan Elcoro, José María Lamarain, Juan Andrés ...karate, Pedro Telleria, Valentín de La...kano, Narciso Bareño, Ruperto Elcoro, Juan Cruz Aranzeta, Timoteo Loidi, José Domingo Basauri, Vicente Laz..., Raimundo Villar, Dimas Aranzeta, E...nio Aranzeta, Mateo Olarieta, Epifanio Elexalde, Eulogio Oxanguren, José ...llastegi, Eleuterio Askasibar, Félix ...rasketa, Leandro Arozena, José Oxanguren, Braulio Elcoro, Marcelo de Telleria, José Askasibar, Pedro Retolaza, Francisco Albistegi, Lucio de Urizar, Juan ...karate, Isidro Askasibar, Flores Kap...txipi, Lucio Telleria, José Basterrechea, Ciriaco Sagastigutxia, Antonio Arizmendi, Pablo Egizabal, Pedro Iturricastillo, Francisco María Sagastigutxia, Rufino Aranzeta, Eugenio Elortza, Sebastián Egizabal, José de Urizar, Lucio Osoro, Lorenzo Iturricastillo, Eusebio Egizabal, Ce... Azkarate, Gervasio de Erzilla."

卐 卐 卐

Casi todos los vecinos suscriben esta actitud de los firmantes, y si las firmas no se han recogido no son más numerosas, ello se debe a la falta de tiempo para recogerlas y salir al paso de esta vil campaña.

EUZKELDUN TXAPEL OLA

Boinas Elósegui



TOLOSA

ERRIJETATIK

LEGAZPIA

IDAZKUNAK...—abeŕtzaleak diranean beren aiteak nundik arkituko ibiltzen dira. (Amearik ez dute gau-iluna besteik).

Baña bart-afatsean agertu diran bezelakoak diranean (Viva la revolución social; olaxe) ¡A lá lá... fraternité, egalité eta liberte oŕeikatik ez dituzte bilatzen oyen egileak.

• Oraintxe daukazu aukerea auspo ospetzu oŕek, "entxufetxu" bat irabazteko.

Buxka, buxka.

EUZKO-ESKAYAK. — Abeŕtzaleak, Batzoki-askundea il-onen 11'n degula ba'dakizu ta abeŕtzalien etxietan, txaidean bezela basetxietan ere, egun oŕtan euzko-eskayak ipiñi beaŕ direla.

Noz-edo-noz asi beaŕ degu, lotsak bilduŕak eta zer-esanak utzi alde batera egin-ustelak uzten diran bezela, eta gure abeŕia Euzkadi dala nun nai ta edonoiz azaltzen.

¡Abeŕtzaleak, esnatu, esnatu!

Eskayak, Saratsola-enean eta Ituŕbe-enean dauzkatzute salgai, onak eta merke.

ELUŔ-TXURI.—Idazkide onek ainbeste aldiz ez aitatzeko bere izena, esan digu, gure idazkietan.

Eta Eluŕ-Txuri ondo arkitzen dala, ondo arkitzen dala Eluŕ-Txuri, eluŕ, eluŕ, eluŕ, txuri-txuri-txuria bezela laisteŕ.

ZAŔ-ZALE.

ARETXABALETA

Gizon, gizon danak zinistu ezinditekena gertatu da Aretxabaleta'n, gure udal etxean juan dan ostiralean udalak egin zuan batzaŕean.

Gai onetzaz, nere ustez ixilik egon beaŕ nitzake, eguneroko izpaŕangietan ain egoki mintzatu dirala, emengo idazle jayoak ikusi ondorean, baña ni idazle kaskaŕa izan aŕen, nik ere euzko-odola det, eta euzko-odolaz gañera, baita gizonak duan zentsumena ere, eta zentzumena duan gizonak, ezin lezake izilik egon gertakari lotsagaŕi au ikusita.

¿Zer uste dezute gertatu dala?

Entzun:

Ostiralean, esan detan bezela, gure udalak edo "Ayuntamentuak" oitura duan bezela, batzaŕa egin zuan, eta gauz gustiak erabaki ondorean, eta amaitzeko ordua eldu zanean, bi "demokratiko,,'k irten zuten "al ruedo" bi paper eskuetan zutela, eta paper au erakutsiaz esan zuten, españeras"... El contenido de este papel hay que aprobar a la fuerza" eta orduan ¡Jakiña!" alkate jaunak erantzun zioten esanaz: Gai ori ezin erabaki dezakegu zergatik "Orden del dían" ez da agertzen eta gai ori erabakitzeko, beaŕezkoa zaitzue datoŕen batzaŕerako idazki bat agertzea, eta orduan ikusiko da". Baña iñolaz ere, gizon auek ez dute ulertzen gizonen itza, eta erantzuten dute: "Pues si no es a buenas, a malas" eta ¡an ziran itzak! Satanas'ek ere etzuan zikinkeri aundiagorik esango, ez bakaŕik itz baita ere egintzak, alkate jaunari aŕi aundi batekin sayatzetako edeŕa eman zioten, eta alkate ordekoari ere beste antzezko bat ere aŕtu du, eta idazle'ri ere masaleko edeŕa eman zioten, baita ere beste gizon "kainkalu, euli batek aña indaŕ ez duan batek, Galdos abeŕtzale zintzoari ere, beste masaleko bat eman zion.

Eta esandetan bezela, itz edeŕak entzuten ziran gizon auen aotik, baña ez nea zer esan zuten ipintzen zergatik... zorionez edo zori txarez ondo ezagutzen diīugu euzkaldun guziok "sujeto auek"...

Eta saŕi esaten zuten itz auek "Que no salga nadie, pase lo que pase", baña abeŕtzaleak noiz bait konturatu ziran udal etxean gertatzen zana, ta 10 bat juan ziranean 70 ugetista laisteŕ irten zuten, banaka, banaka, txepetxa baño, ariñago... eta oŕela bukatu zan...

Orain uste osoan gaude, Aretxabaleta'ko euzkaldun guziok Artolatxok, beaŕ dan "justicia" egingo duala, baña... bilduŕ gera!... zergatik... sosolistoak dira eta...! bai, abeŕtzaleak izan balira ¡orduan "qué bien"... baña oraingoan "pareja" batzuek bialdu beste ezer gertatu ez dedin... eta "paciencia" y... éste se acabó, señores...

¿Euzko semea... zer derizkiozu gertaera oni?

¿Jaŕaituko ote dezu oraindik oŕelako "sujetoak" iraun erazoten? Ori egiten badozu oŕegatik... zer esango ote dute zure anai euzkaldun guziak zurekatik? Ez ote zera esnatuko?

Basaŕitaŕak: Jaramonik egiten aldiozue gizon "txatxu" abei? Egiten dizuen itz leunai nola erantzun diozute?

Ez noski, ez det uste, zergatik zuen odola, euzko-odol goŕia da, eta oso garbıa gañera... ez... ezin dezake bi odol auek bat egin... zikiña bai da... beste au...

Iñoz baño, beroago eta sutsuago... Aguŕ GORA EUZKADI AZKATUTA.

MURU-MENDI.

INGI BILDEGIA
Papelería del Oria
MORAIZ'TAR JOSEBA MIRENA
Teléfono, 154. TOLOSA

AXANGIZ

Axangiz'ko Euzko-Batzokija eta Emakume Abeŕtzale Batza'ren Askundea. Anditsuba ospatuteko jai-abeŕkoyak ixango dira.

Goxeko 7'tan.—Danon Jaunartzıa.

10'tan.—Eŕijetako ikuŕin eta ordezkarijen aŕera.

10'ta erdijetan.—Jaupa Abestuba, Gernika'ko Abeslarijak abestuko dabe jaupa nagusija.

Jaupea amaīuta.—Onetsiko da Kortezubi'ko Gastetxuben ikuŕiña, eŕi-gustijetako ikuŕiñen laguntasunagaz.

Gustija amaīuta. — Ezpatadantzarijen ekinaldija ixango da Gernikaŕ "Txara-Txara'ko" Mendigoxaliak.

1'ta erdijetan.—Oturantza.

Espetxian

Garate'taŕ Domeka aizkide onari bijotzez.

Espetxeko burdiñak
ezin leikez ausi;
txori gaxua, ¿zetan
azke jayo ta asi,
ta andi egindakuan
katepian jausi?
Ien azke, ta orain ¿zelan
espetxian bixi?...

Gauŕ-arte eztozu iñoiz
ezautu katerik,
gauŕ-arte azke ziñan
estuntza bagarik,
etzendun iñoiz ixan
jopu-bustaŕirik,
egundo eztozu ixan
nagusi ankeŕik...

¿Zetarako nai dozuz
ba, orain eguak
ezin ba'dabe egaz?
¿Nun zure asmuak?
¿Nun dozuz orain zeure
abesti gozuak?...
¡Aztu-azo dautzubez
burdiña senduak...!

Ez! txori maīetxuba,
etzara or ilgo,
etzendun bixitza aŕtu
jopu ixateko,
espetxe baŕurako
etziñan zu jayo;
jayo ziñan il aŕte
azke bixiŕeko...

Euzkadi maīe ori:
jopu ixateko
etzinduzan Jaun onak
egin ¡ez egundo!

Jauna'k egiña zara
estuntzak austeko,
aŕotzen jopu bage
zuzen bixiŕeko,
aŕano jareyak iez
egaz egiŕeko
urdin neuŕibagia
-ziaŕ ibilteko,
bustaŕijak austurik
azke ixateko...

Euzkadi Abeŕija,
kutun bijotzeko:
euzkuak gertu gagoz
zeu azkatuteko.

ENDAITZ.

Tolosa'ko Euzko-Gastediarne irugarren irtera Elduayen'en

Irugaŕena bota degu. Nolabait gañera. Gure zabalkunde jai guzitan bezela, igandekoan ere euria izan bai genun.

Belauntza'ak lenbizi. Lizartza'k gero, orain, azkenez, Elduayenek abeŕi-deya entzun du. Ez alda beintzat biotzak eŕuz irabazi gabe galduko.

Aŕatsaldeko irurak. Lau automobil Abeŕi-Etxe parean. Igandero bezela, ba goaz abeŕia egitera. Nekatu antzeko edo degu arpegıa. Betiko ibilera auxe asparztzeko ere bai baita... Abeŕiak ordainduko aldigu.

Elduayen'en gera. ¡Aguŕ lagun amaiteok! Iganderokoekin mintzatu nayez, ementxe gauskatzute tolosaŕok. Baseŕitaŕak esnatzeari bizi bai gera...

Eŕiko enparantza bai apain zegola. Itzaldi leku obeagorik... bañan ezin. "Kamiñoan" bera goaz. Baseŕi batera. Oraingoan ez degu oŕaitik mandioa itz-toki. Baseŕi bateko leyo aundi apaña.

Ez da gure zabalkunde jaitxitan jendetza aundirik biltzen. ¿Zertarako? Zaspireun edo zortzireun baseŕitaŕ auŕean ikusteak, biotza, pozak gaintzen digu. Igandean ere, milatik gora ba genitun, gure deya entzun nayez etoŕiak. Antola bada ortik gure poza irakuŕle.

Sagastibeltza ibartaŕ gasteak egin zun izlarien aurkezpena. Egoki Labur. Beaŕ bezela. "Arantxa" euzkel-idazle aipatuba eta Leunda'taŕ Pausta Mintzatuko zitzaiskigula adieraziz, txokoratu zan gure ibartaŕ laguna. Edeŕki.

Eta Munita'taŕ Iñake ari zaigu bere euzkera goxo edeŕean, baseŕitaŕen biotzetan, abeŕtzaletasun etxe izango danaren zimentuk botatzen. Itzaldi egokia benetan gure "Arantxarena". Zorionak Iñaxi. Jaŕai eten gabe. Gure JEL zabalkunde jaitxotan nai ta nayezko zaitugu ta.

Biotzez mintzo zan benetan gure Leunda. Biotzetik biotzera aritz zitzayen baseŕitaŕei. Eten zitun, apurtu zitun, gautkoan, abeŕtzaletasunari etsayak zortzen diskaten zenbait katramila. ¡Bejondeikela Pausta!

An ginduzun gustiak txapela erantsirik, euzko-abendarena abestuz amaitu zan mitiña.

ANTZEŔKI-JAYA. — Igandean, gure antzestokia Abeŕi-Etxean gelditu zan. Euriak galerazi zigun Elduayen'era eramatea. ¡Bai zoritxaŕekoa dala gure "armatostea", Abeŕi-Etxea usteko lenengo imintzioetara, kopet ilun jaŕiko zeruba, eta laxteŕ euria mara mara. Landa, ur-egaŕiz donean, gure antzestokia eraman bearko eriz eŕi.

Beraz, igandean, Elduayen'en etzuten ikusi "Patxiku Ikasgilearen" mutur beltza.

Jesús Ostolaza
BERGARA
FABRICA DE INSIGNIAS DE ESMALTE FINO
AZALIRARRI MIEZKO IKURRIÑEN OLEA

SE RECOMIENDA POR SI SOLO EL ALIMENTO INSUPERABLE
ALAR-ONENA
Olo aŕautzagilientzat eta txitak azteko. Utsik ematen ez duten jatekuak: Aragi aŕain eta azuŕ-irin "Alar Onena".
Especialísimo para gallinas ponedoras y cría de pollitos. Resultados garantizados Harinas de carne, pescado y hueso "Alar Onena".
Maria J. Esnaola
Miracruz, 21 SAN SEBASTIAN Teléfono 12.014
¡ALERTA! EXIGID SIEMPRE LA MARCA "ALAR ONENA"

Léase EUZKADI

URQUIOLA
HOTEL BUENOS AIRES
Gran confort, especialidad en platos del país, a precios económicos. Para personas estables, precios especiales. Se preparán encargos avisando al teléfono número 5 de Urquiola.

Agencia funeraria
DE LOS
HIJOS DE BARO
Carrozas, féretros, coronas, hábitos.
CARNICERIA VIEJA, 2
Teléfono 10.207.